

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

## 5915

*HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2017ko azaroaren 22koa, Osasuneko sailburuarena, Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren, BIOEF, neuroendekapenezko gaixotasunen ikerketa proiektuentzako laguntzen deialdia onesten duena».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.a) artikulua xedatzen duenez, aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurkitzaileen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta.

Era horretako hutsak aurkitu dira, Osasuneko sailburuaren 2017ko azaroaren 22ko Agindua-ren testuan, zeinaren bidez onesten baita Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren, BIOEF, neuroendekapenezko gaixotasunen ikerketa proiektuentzako laguntzen deialdia (2017ko azaroaren 30eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 229. zk.). Hori dela-eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen.

2017/5804 (42/35) orrialdean dagoen IV. eranskina ez da zuzena. Horregatik, jarraian datorrenak ordezkatu behar du:

2017ko abenduaren 7a, osteguna

## IV. ERANSKINA

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

jn./and., IFZ duenak, erakundearen legezko ordezkari gisa,

## ADIERAZTEN DU ERAKUNDE HORREK:

betetzen dituela honako agindu honetako 3. artikuluan azaldutako eskakizunak eta betebeharrak: BIOEF Berrikuntza+Ikerketa+Osasuna Euskal Fundazioaren neuroendekapenezko gaixotasunen inguruko ikerketa-proiektuentzako diru-laguntzen deialdia (2017ko -en EHAA, zk.) arautzen duen Agindua. Gainera, ez da aurkitu agindu horretan bildutako laguntzak eskuratzea galaraz dezakeen ezein gorabeherarik.

-(e)n, 2017ko -ren (e)an.

(Legezko ordezkariaren sinadura eta erakundearen zigilua)

Sin.: